



Prensa oharra

Barakaldon, 2019ko urtarrilaren 24an

Emakume argazkilariei zuzendutako Barakaldoko BAFEST IV. Argazki Jaialdia abiatu da

- Hitzorduaren barruan, martxoaren 15era arte euren lanak aurkeztu ahal izango dituzten emakume argazkilariei zuzendutako "Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren emakume argazkilarien Lehiaketa" eta Miren Pastor komisario dela, "Zein da nire lekua?" gaiari buruzko gogoeta egingo duen "Sekzio Nagusia" daude
- Ura Iturralde 2018ko Lehiaketaren irabazleak, "Hidden Iran" erakutsiko du jaialdia amaitu arte, Barakaldoko kaleetara helduko diren formatu handiko lehenengo 6 argazkiak

Barakaldoko Udalak antolatzen duen Barakaldoko BAFEST Argazki Jaialdiaren IV. Edizioak motorrak berotu ditu, gaur goizean formatu handiko hiriko argazkigintza jaialdiaren xehetasunak aurkeztu ondoren. Herritar guztiei zuzenduta dagoen arren, erabateko protagonistak emakume argazkilariak dira. BAFEST 2019, Euskadin jaio edo bizi diren eta martxoaren 15era euren lanak aurkeztu ahal izango dituzten emakume argazkilariei zuzendutako "Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren emakume argazkilarien Lehiaketak" eta Miren Pastor komisarioa duela, "Zein da nire lekua?" gaiari buruzko gogoeta egingo duen "Sekzio Nagusiak" osatuko dute.

Amaia del Campo Barakaldoko alkateak edizio honen xehetasunak azaldu ditu, itxaropen guztiak bete dituen eta aurtengo edizioaren abiapuntua izan den prentsa aurrekoan. Ura Iturralde, Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren emakume argazkilarien 2018ko txapelketako irabazleak, "Hidden Iran"



Prentsa oharra

erakusketa erakutsiko du maiatzaren 31n jaialdia amaitu arte, Barakaldoko kaleetara helduko diren formatu handiko lehenengo 6 argazkiak. Gaur goizean, emakume argazkilariak ikusgai bilakatzen dituen jaialdiaren aurkezpen ekitaldia babestu dute. Bertan egon dira Miren Pastor "Sekzio Nagusiaren" komisarioa eta Ura Iturralde argazki-erreportaria.

Amaia del Campo Barakaldoko alkateak azaldu duenez, "erakusketa honekin argi eta garbi erakutsi gura dugu berriro Baffest zer den: artea eta erreibindikazioa. Izan ere, Udalak, Fotopop-en eskutik antolatu duen Barakaldoko Argazki Jaialdiaren helburua, argazkigintza, arte adierazpen gisa, herritar guztiengana hurbiltzea da, eguneroko jarduneko gune komunetan jarritako formatu handiko argazkien bitartez. Baina Baffest jaialdi erreibindikatioa izan da hasieratik. Beste ezer baino lehen, emakumeak argazkigintzan betetzen duen lekua azpimarratu gura dugu, betidanik gizonak nagusi izan diren munduan. Baina, horrez gain, erakusketa bakoitzak, ikusgai bilakatu behar diren gizarteko errealitate desberdinak islatzen ditu".

Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren emakume argazkilarien txapelketa

Deialdia euskal artisten argazki sorkuntza bultzatzera eta ikusgai bilakatzera dago bideratuta, eta Euskadin jaio edo bizi diren eta euren ibilbide artistikoa edo/eta profesionala oraindik finkatuta ez duten emakumeei dago zuzenduta.

Emakume hautagaiek, serie bereko 10 argazkiz osatutako argazki proiektua aurkeztu beharko dute, lana azaltzen duen testu batek eta biografiak lagunduta.

Miren Pastor argazkilari eta edizio honetako komisarioak eta Roberto Villalón Clavoardiendoko zuzendari eta jaialdiaren aurreko komisarioak zuzendutako epaimahaiak 10 argazkilari aukeratuko ditu, aurreko edizioetan baino lau gehiago.



Prentsa oharra

Argazkilari bakoitzak bere proiektua Barakaldoko kaleetan erakutsi ahal izango du, eta irabazleak "Sekzio Nagusiko" gonbidatu gisa hartu ahal izango du parte BAFEST 2020an.

Kontuan izan beharreko epeak hauek dira:

-Deialdiaren irekiera: 2019ko urtarrilaren 22a

-Deialdiaren itxiera: 2019ko martxoaren 15a, 00:00 CETean (Penintsulako ordua)

-Aukeratutako 10 argazkilarien iragarpena: 2019ko martxoaren 22a

-Erakusketen inaugurazioa: 2019ko maiatzaren 6a.

Oinarriak www.baffest.com/certamen webgunean kontsulta daitezke

Sekzio Nagusia

Barakaldoko BAFEST Argazki Jaialdiaren IV. Edizioa, argazkia mundua aztertzeko, sentitzeko eta eurenganatzeko tresna gisa erabiltzen duten egileetan zentratuko da. Miren Pastor komisario dela, "Zein da nire lekua?" gaiari buruzko gogoeta egingo du.

Pastorren hitzetan, "enpatiatik topikoekin, estereotipoekin eta aurreiritziekin apurtzen dute. Errealitatearen eta fikzioaren arteko mugaren anbiguetatean sakontzen dute. Muga fisikoei, sozialei eta psikologikoei erronka egiten diete. Afekziozko lotura emozional bilakatzen diren jakin-min, beldur eta desio talka etengabea, iraganera lotutako sustraiak deslotuz, horrela, euren lekua aurkitzeko nahia indartuz".

"Errealitatearen pertzepzioa eraldatu egiten da", adierazi du komisarioak, eta "errealitatearen ingurunea imajinario pertsonalarekin uztartzen da,



Prensa oharra

egunerokotasuna gainditzen duten mundu berriak eraikiz. Lurralde partikularraren hedapen poetikoa eskala unibertsalean”.

Maiatzaren 6tik aurrera, oraindik aurkitu gabeko mota guztietako sinbolismoz eta metaforaz betetako argazkiek Barakaldoko kaleak inbadituko dituzte, ikusle guztiak horiek modu librean interpretatzera gonbidatuz.

Miren Pastor, 2019ko komisarioa

Arte Ederretan lizentziatua da EHU-UPVtik, eta une honetan Madril eta Lekeitio artean bizi da, zenbait proiektu garatuz argazkilari eta kultur dinamizatzaile gisa. Azken hamarkadan Madrilgo Blank Paper Escuela izenekoaren koordinazioa izan du bere gain, erakusketak, aurkezpenak, hitzaldiak eta topaketak antolatuz egungo argazki panoramako egile garrantzitsuenekin.

Bertan hasi zen “Bidean” sortzen. “Río” proiektuko hiru argazki-liburu auto-argitaratu ditu, nazio eta nazioarte mailako hainbat jaialditan erakutsi ditu bere lanak, eta 2016an BAFESTeko lehen edizioan hartu zuen parte.

Argazki-liburu zale amorratua, Fiebre Photobook Jaialdia antolatzen du, “La Troupe” kolektiboko kide da, eta ez du esku-hartzerik izateko aukerarik galtzen, argazki-liburua ikusle guztiengana hurbiltzeko xedez. Hainbat argazki, zine eta antzerki jaialditako komunikazioa ere kudeatzen du.

Ura Iturralderen “Hidden Iran” erakusketa

Ura Iturralde, Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren emakume argazkilarien 2018ko Lehiaketaren irabazleak, “Hidden Iran” erakutsiko du jaialdia amaitu arte, Barakaldoko kaleetara helduko diren formatu handiko lehenengo 6 argazkiak.

Hasieratik, testuinguruak ez gaitu hotz uzten. Irango Errepublika Islamdarrean, transexualitatea legezkoa da. Thaiandiaren ostean, mundu osoan sexu aldaketa ebakuntza gehien egiten duen herrialdea da, eta Gobernuak kirurgiaren parte



Prensa oharra

bat diruz laguntzen du. Ebakuntza, berriz, ez da aukera, ia inposizioa da. Gizartearen parte batek onartzea nahi izanez gero dagoen aukera bakarra. Beste alde batetik, berriz, homosexualitatea zigortuta dago, heriotzarekin, batzuetan.

“Hidden Iran” erakusketak, herrialdeko LGTBI komunitateko gazteen bizi-gogorra erakusten du. Askatasunarekin amets egiten duten gazteak, euren jaioterrian edo kanpoan. Lan hori egiten ari zen bitartean, pertsona horietako batek bere buruaz beste egin zuen. Izan ere, azken argazkia, pertsona horri eta kausa horren alde borrokan jarraitzen duten guztiei eskainitako omenaldia da.